



## **EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2023-2024 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola-egutegiak, 2023-2024 ikasturtean, ondoko arauari jarraituko die:

1.- Ikasleek jasoko dituzten eskola egunak, gutxienez 175 izango dira, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako berariazko jarduerak eskola-egunen barne direlarik, hala nola elkarrizketa pertsonalak eta ikasleak talde eta maila ezberdinetara bideratzeko hasierako frogak.

2.- Ikastetxe publikoetako irakasle guztiak ikastetxera irailaren 1ean sartuko dira (ikasturtearen plangintza eta prestakuntza, eta ikastetxearen urteko plana lantzeko.....) 2023-2024 ikasturte hasierako jarduerak egiteko. Elkarrizketa pertsonalak eta hasierako frogak burutzeko irakasleen eskola egunak irailaren 7tik aurrera kontatuko dira. Lehenengo lauhilabetekoan zuzeneko irakaslanak irailaren 15an hasi beharko du eta urtarrilaren 26an bukatu; eta bigarren lauhilabetekoan otsailaren 5an hasi eta, beranduen jota ere, ekainaren 21ean bukatu. Edonola ere, hezkuntza maila bakoitzaren azken ikasturtea amaitzeko egutegia finkatzerakoan, kontuan hartu beharko dira ondorengo irakaskuntzetara sartzeko prozeduretako ezarri diren datak, ikasleak prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko.

Urtarrilaren 29etik otsailaren 2ra bitarteko astean banan-banako elkarrizketak eta hasierako frogak egingo zaizkie bigarren lauhilabetekoan taldeetara sartzen direnei. Lehenengo eskola eguna 2023-2024 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabili ahal izango da.

3.- Irailean eta bigarren lauhilabetekoaren hasieran irakasleek ondorengo jarduerak egingo dituzte:

- Ikasturtearen plangintza eta prestakuntza, eta ikastetxearen urteko plana.
- Ikasle berrien matrikulazioa.
- Ikasleak talde ezberdinetara bideratzeko elkarrizketa pertsonalak eta hasierako frogak.

Azken eskola-eguna eta ekainaren 28ra bitarteko epea beste jarduera batzuk egiteko erabiliko da: Ikastetxearen urteko plana ebaluatzeko, Ikasturtearen Oroitza prestatzeko eta beharrezkoak diren administrazio-agiriak betetzeko. Uztailean ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek euren karguen zereginak bete beharko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

4.- Ezinbesteko kasuren batengatik eskola egun kopurua murriztuz gero, egutegia egokitu egingo da, ezarritako eskola egunak emateko, beti ere langileen lan eskubideak errespetatuz.





Egutegia egokitu behar izanez gero, hasierako prozedura – egutegia finkatzeko erabilitakoa - bera erabiliko da, eta Gobernu Organo Eskudunak ez badu egokitzen, Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatuko du egutegia egoki dezaten. Eskaera horri erantzun ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak moldatuko du egutegia eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute maila jakin bateko zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

6.- Eguberritako oporraldiak 2023ko abenduaren 24tik 2024ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, azken hau barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2024ko martxoaren 28tik apirilaren 1era bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2023ko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo dute, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien argibideak jarraituz. Ikastetxeek aplikazio horretan ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko dute. Organo horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.



**HEZKUNTZA SAILA**  
Hezkuntza Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**  
Viceconsejería de Educación

8.- Ikastetxeren batek finkatutako epealdiaren barruan eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariak egindakoa jarraitu beharko du.

Vitoria-Gasteizen,

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp.: Begoña Pedrosa Lobato